

12. BIZI-ZIKLOAREN EREDUA

Garapenaren egungo ikuspegi berri bat izango da mintzagai gai honetan, bizi-zikloarena, hain zuzen ere. Hasteko, bizi-zikloaren ikuspegi orokorra azalduko da; ondoren, eredu horretatik abiatuz, adinen sailkapena deskribatuko da; horrez gain, garapeneko gertaera normatiboak eta ez-normatiboak deskribatuko dira; gainera, gaian sakontzeko jarduerak, gaia menderatzeko oinarrizko kontzeptuak, autoebaluazioari buruzko edukiak eta irakurgai osagarriak bildu dira.

12.1. Bizi-zikloaren ikuspegi orokorra

Bizi-zikloaren (life-span) orientazioak garrantzi handia eman dio helduaroa eta zahartzaroa aztertzeari. Hala ere, beharrezkoa da esatea ez dela teoria zehatz bat, hainbat joeretatik hurbil dagoen ikuspegi bat baizik (testuingurukoa, dialektikoa, dinamikoa, eta abar). Joera hori garapena errealitatetzat hartzen duen jarrera-hartze bat da, eta, bizi-ziklo osoan zehar gertatzen denez (mota guztietako esperientziez gainezka, beraz, baita belaunaldi-esperientziez ere), hura aztertzeke ez dira bakarrik garapenaren lehen aldietan oinarritzen (haurtzaroa eta nerabezaroa). Hipotesi horrek agerian jarri nahi du aldagai unibertsal normatiboek oro har zer nolako garrantzi erlatiboa duten garapenerako (hainbat teoriak proposatuak, hala nola epistemologia genetikoak edo psikoanalisiak). Aldagai horiei testuinguruko edo historiako beste aldagai batzuk erantsi behar zaizkie; haien garrantzia, hainbat ikuspegitatik landu bada ere, ingurunearekin edo gizarte-elkarrekintzarekin lotutako ikuspuntuek edo gizarte-elkarrekintzazkoek jarri dute mahai gainean. Hala, bizi-zikloaren ikuspegia aipatzean, nolabait, aldeztetik azalduko hainbat ideia hartu behar dira berriz ere. Garapenari buruz aurretik zatika adierazitako ideien azalpena izan dena, oraingoan, ordea, kontzeptu multzo baten barruan sartu da, eta multzo heterogeneoa, artikulatua eta antolatua izango da (metodologiaren aldetik koherenteagoa garapen-ikerkuntzarako).

Bestalde, bizi-zikloaren ikuspegiak ekarpen garrantzitsuak egin dizkio pertsonen bizitza osoan zehar gertatzen den garapenaren azterketari, eta, horren ondorioz, gaituztu egin du lehen aldien eremua, orain dela gutxi arte garapenaren psikologiak oinarri izan duen eremua, hain zuzen. Horregatik, tarte garrantzitsua emango zaio bizi-zikloaren ikuspegiari, ez soilik gaur egungo garapenaren psikologiaren barruan duen garrantzi

handiagatik, baizik eta orientazio horrek bizitzaren geroagoko adinen azterketa lehenetsi duelako; gai hori bereziki interesgarria izan da azken urteotan (Fernandez Lopiz, 1998).

Baltes-ek, Reese-k eta Nesselroade-k (1981) metodologiari begira dagoen garapenaren psikologiaren definizio bat iradokitzen dute; hau da, definiziotik, psikologia aztertzeko beste diseinu metodologiko baten planteamendua eratortzen da, eta, definizioaren arabera, gainera, garapenaren psikologia hartuko da orientazio gisa, jokabidea aztertzeko moduan. Hala, garapenaren psikologia bizi-zikloan zehar jokabidearen aldaketa intraindibidualak nolakoak diren, horiek nola aldatzen diren deskribatu eta azaltzen du (optimizatu); halaber, aldaketa intraindibidualean gertatzen diren desberdintasun interindibidualak (baita antzekotasunak ere) hartzen dira aintzat.

Aldaketa intraindibiduala edo pertsona barneko aldaketa, pertsonaren barruan gertatzen den aldaketari dagokio; *aldaketa interindibidualak* edo pertsona arteko aldaketak, berriz, adierazten du aldaketa hori zein mailatan ez den bera norbanako guztientzat, hau da, norbanakoen artean aldaketa intraindibidualean zein desberdintasun dauden. Pertsonaren barruko eta pertsonen arteko aldaketa aztertzen du, beraz.

12.2. Adinen sailkapena

Bizi-zikloaren ikuspegiak jaiotzetik bizitzaren amaieraraino dauden garapen-prozesuen azterketa egitea dakar, kontuan hartuz adin kronologikoa ez dela aldaketa eragiten duen aldagai nagusia, haren faktore adierazlea baizik. Hala, gizarte aldagarri batean aldatzen den subjektu bat aitortzen da; haren aldaketak aldagai biologikoen, intraindibidualen, soziokulturalen, historikoen eta ingurune fisikoko aldagaien arteko elkarrekintzaren emaitza dira (Baltes, 1986).

Beraz, adinak, zalantzarik gabe, balio deskribatzaile eta erreferentziala du. Hala, esate baterako, azterketapean dauden garapenaren aldiei dagokienez, sarritan, helduaroa eta zahartzaroa zatikatu egiten dira. Ondorioz, honako aldi hauek bereizten dira: helduaro goiztiarra (20 eta 40 urte artean normalean), erdiko helduaroa (40 eta 60 urte artean), helduaro berantiarra (60 eta 65 urte artean), hasierako zahartzaroa (65 eta 75 urte artean) eta zahartzaro berantiarra (75 urtetik gora, normalean). Zatikatze horren balioa, hala ere, erlatibo samarra da, eta posible da beste adin-taldekatzeko batzuk egitea, bestelako muga kronologiko eta izendapen batzuekin. Baina, aurreko gogoetekin adin-garapenaren auzia bukatutzat emateko asmorik gabe, adinaren kontzeptuak dituen esanahi ugariak zuzenak izan arren, merezi du horietan sakontzea, horri esker nerabezeroaren eta gaztaroaren

geroagoko garapen aldien esanahia hobeto kokatuko baita. Horretarako, Birren-ek eta Renner-ek (1977) adinaren hainbat esanahiren artean proposatutako bereizketa erabili da:

- *Adin kronologikoa*: pertsona baten jaiotzetik igaro den urte kopurua da. Seguruenik, ondoren aztertuko diren indizeen artean, baliagarritasun gutxiena duena da, garapenaren lehen urteetan izan ezik beharbada (jaioaurreko bizitza, lehen haurtzaroa). Haietan, adin kronologikoaren eta kanalizazio-prozesuen arteko lotura sendoak aurreikuspen doiagoak egiten laguntzen du (gogora ekarri behar da, ordea: esate baterako, adinak, *per se*, ez du laguntzen 12 hilabete aldera ibiltzen ikasten; hala izango balitz, neska-mutil guztiak adin horretan hasiko liratekeelako ibiltzen. (heldutasunak, estimulazioak eta motibaziok laguntzen dute ibiltzen ikasteko).
- *Adin biologikoa*: bizi-potentzialari aintzat hartuta, pertsona bat dagoen tokiari buruz egiten den estimazioa da; kontzeptu hori lotu egiten da, beraz, osasun biologikoarekin, eta ez horrenbeste adin kronologikoarekin. Esate baterako, 70 urteko bi pertsonak oso adin biologiko desberdina izan dezakete, haietako batek egoera fisiko oso ona, eta besteak, berriz, osasuna oso hondatuta badauka.
- *Adin psikologikoa*: pertsona batek duen egokitzapen-gaitasunarekin du zerikusia, hau da, inguruneko eskakizunei aurre egiteko dituen aukerekin; berriz ere, adin kronologiko bera duten bi pertsonak adin psikologiko guztiz desberdinak izan ditzakete; bata bere baliabide psikologikoak erabil ditzake (adimena, motibazioa, emozioa, gizarte-gaitasuna, eta abar) eguneroko bizitzako erronkei era egokian erantzuteko, eta besteak, berriz, zailtasunak izan ditzake arlo horietakoren batean edo batzuetan (oroimen-arazoak, motibazio eza, gizarte-isolamendua, eta abar).
- *Adin funtzionala*: adin biologikoaren eta adin psikologikoaren kontzeptuak integratzen ditu, eta burujabetasun- eta independentzia-gaitasunari dagokio. Hala, esate baterako, pertsona batek bere etxean bakarrik bizitzeko osasun biologikoaren egoera jakin bat izan behar du: sartzeko eta ateratzeko gaitasuna, toki batetik bestera joateko gaitasuna eta, besteak beste, gogoratzen, planak egiten eta antolatzen utziko dion gaitasun psikologiko jakin bat.
- *Gizarte-adina*: adin jakin batzuei lotutako rolekin eta gizarte-itxaropenekin du zerikusia; itxaropen horien barruan dago 30 urterekin lanean ibiltzea, 40 urte aurretik seme-alaben bat izatea, 65 urterekin erretiroa hartzea, baita urte batzuk

geroago aitona edo amona izatea ere. Gizarte-adinak garrantzia du, besteak beste, ohiko adin-tarteetatik kanpo gertatzen diren esperientziak –bereziki haietatik asko urruntzen direnean– estres- eta zailtasun-iturri izaten direlako, esate baterako, neska bat 16 urterekin ama izatea edo inor 50 urterekin erretiratzea. Hala ere, azken urteetan, mendebaldeko ohituretan eta itxaropenetan gertatu diren aldaketek gizarte-adinaren tarteak asko malgutzea ekarri dute; hala ere, ez da batzuek dioten muturreraino iristen, hau da, ez dute esaten gizarte-adina garrantzirik gabekoa denik.

12.3. Gertaera normatiboak eta ez-normatiboak garapenean

Aurreko bereizketei desberdintze bat erantsi behar zaie adinak garapena moldatzen duten eraginekin duen erlazioari buruz. Adinarekin erlazionatutako gertaera normatiboen, historiarekin erlazionatutako gertaera normatiboen eta ez-normatiboak diren gertaeraren arteko erlazioa (Baltes, Reese eta Lipsitt, 1980).

12.3.1. Adinarekin erlazionatutako gertaera normatiboak

Adinarekin erlazionatutako *gertaera normatiboek* garapen psikologikoari eragiten dioten alderdiekin dute zerikusia, eta adinarekin erlazio estu samarra dute; beraz, pertsona baten adina ezagutuz gero, iragarpen zuzen samarrak egin daitezke haren garapen-prozesu batzuei buruz. Hala, haurtxo batek 6 eta 9 hilabete artean dituela jakinez gero, aurrean daiteke 5. atalean aipatu ziren atxikimendu-sistema eta arrotzen aurreko zuhurtzia-sistema osatzen dabilela bete-betean; 6-8 urte dituela jakinez gero, aurrean daiteke logikaz arrazoitzeko eta kontrol emozional jakin bat izateko gai dela, baita bere bizitzaren aldi horretan ere bere adineko beste hurrekin dituen harremanek garrantzi handia hartuko dutela, aurreko ataletan aztertu den bezala. Haurtzarotik alden du ahala, gertaera mota horiek gero eta garrantzi txikiagoa dute, adinarekin lotutako helduek eragin gutxiago baitu eta askeagoa baita; beraz, beste gertaera-iturri batzuk nagusi bihurtuko dira, bereziki, nerabezarotik aurrera.

Gertaera mota horrek, berriz ere, garrantzi handia izango du giza bizitzaren amaieran, eta giza bizitzaren azken tarteetan aldaketa biologikoek alderdi psikologikoetan izan dezaketen gertaerarekin erlazionatu ohi da hori (erreflexu gutxiago, prozesatze mota batzuetan geldotasun handiagoa, eta abar).

12.3.2. Historiarekin erlazionatutako gertaera normatiboak

Historiarekin erlazionatutako *gertaera normatiboek* garai eta gizarte jakin batzuetan bizi diren pertsona guztiengan dute eragina, baina ez beste garai eta gizarte batean bizi izan diren edo biziko diren pertsonengan. Gertaera horiek eta adinarekin erlazionatutakoek ezaugarri alderantzizkoak dituzte; izan ere, adinarekin erlazionatutako gertaera normatiboek eragin ahuleko ezaugarriak dituzten tokian, historiarekin erlazionatutakoek, berriz, ezaugarri sendoak dituzte, eta alderantziz. Heltzearen edo zahartzearen logika biologikoek beren legea inposatzen dutenean, norbera bizi den inguruneari lotutako desberdintasunak askoz gutxiago nabaritzen dira. Horrela gertatzen da garunaren heltzearekin; izan ere, haziera-praktika oso desberdinak dituzten gizarteetan hazi diren neska-mutilak oso adin antzekoetan iristen dira independentziara, edo, zahartzaroarekin erlazionatutako hainbat hondatze neurologikorengatik, iraupen laburreko oroimeneko edukiak iraupen luzeko oroimenera pasatzeko zailtasunekin aurkitzen dira adin batetik aurrera kultura guztietan (nahiz eta, esan den bezala, bi gertakarien eraginaren garrantzia oso bestelakoa izan). Hala ere, gure bizitzaren zatirik handienean -haurtzarotik bizitzaren amaieran garunean izaten diren (horrelakorik baldin bada) hainbat hondatze funtzionalaraino iritsi arte, historiarekin erlazionatutako gertaera normatiboek eragin oso handia dute.

Historiarekin erlazionatutako gertaera normatibo horiekin estuen lotutako kontzeptua belaunaldiarena da. Esate baterako, gaur egun, 1936-1939ko gerra zibila eta haren ondorioak bizi izan zituen pertsonen belaunaldi bat dago; beste belaunaldi batzuek, berriz, ez zuten bizi. Aldi berean, ez da gauza bera 1918an jaio eta gudari talde batean ibili izana, edo 1930ean jaio izana, eta esperientzia haur gisa bizi izana; eta ez da gauza bera unibertsitate-ikasketak 1970eko hamarkadan amaitu izana, bultzada ekonomiko handia eta enplegu-aukera ugari baitzeuden, edo 1990eko hamarkadako lehen zatian bukatu izana, atzeraldi betean baikeunden eta lan-merkatua txikitu baitzen; ez da gauza bera zentzumenezko hainbat zailtasun arintzeko tratamendu mediko aurreratuenak hartzeko aukera duen zahar bat izatea, eta halako tratamendurik ez zegoen garaian edo biztanle zahar gehienek eskura ez zeuden garaian zaharra izatea.

Historiarekin erlazionatutako gertaera normatiboek kurbak zahartzaroan behera egitea lotuta dago adinari lotutako gertaera normatiboek dagokion kurba handitzearekin: logika biologikoak bere arauak ezartzen dituenean, belaunaldi-gertaerak ahuldu egiten

dira. Hori begien bistakoa da, bereziki, narriadura biologikoak tartean daudenean, batzuetarako ez baitago erantzun terapeutiko egokirik, esate baterako, Alzheimer gaixotasunerako, lerro hauek idazten diren unean tratamendu egokirik baitu; hala, aipatutako gaixotasun horrek jotako bi pertsonen elkarren antza handia izango dute, eta belaunaldi jakin batekoak izateak, ordea, ez du hain garrantzi handia izango.

12.3.3. Gertaera ez-normatiboen eragina garapenean

Gertaera ez-normatiboek izaera idiosinkrasikoa edo ia-idiosinkrasikoa duten esperientziei egiten diete aipamena; dena dela, esperientzia ez-normatiboak dira, jakina denez, adin jakin bat duten edo belaunaldi jakin batekoak diren guztiek pasatzen ez dituzten gertakariak dira. Nerabe batek motor-istripu bat izatea eta osatzeko urteak behar dituzten ondorioak izatea gertaera ez-normatibo bat da; nerabe bat ama izatea gertaera ez-normatibo bat da; heldu batek zori-joko batean sari handi bat irabazten badu, esperientzia ez-normatibo bat izango du; 40 urterekin alargun gelditzea esperientzia ez-normatibo bat da. Azken batean, gertakari bat ez-normatibo bat zera da: batetik, norbanako bat edo batzuegan, baina ez guztiengan, eragina duena; bestetik, une jakin batean gertatzeko aukerari dagokionez, gertaera hori ezin da aurrez iragarri; gertaera normatiboetan, berriz, ez da horrelakorik gertatzen (biologiaren aldetik edo belaunaldiaren aldetik, aurrez esan daitezke).

Pertsona ezezagunek “ustekabeen elkar topatzea” izenekoak da gertaera ez-normatiboen adibide egoki bat (Bandura, 1982); topaketa garrantzitsuak dira, baldin eta, garapenaren ikuspegitik, pertsona jakin batentzat, ondorio funtsezkoak badituzte: ikasle batek bokazio-erabakiak hartzeko orduan eragin erabakigarria duen irakaslea izatea; norbaitek ezezagun bat aurkeztea eta, haren bidez, lana lortzea; mutil batek, ustekabeen, biena den adiskide baten bidez, bere bizikide eta emazte izango dena ezagutzea; horiek guztiak ustekabeko topaketen adibideak dira, aurreikusi ezin direnak, ez-normatiboak, eta gure bizitzaren gainean eragin funtsezkoak dutenak.

Horren ondorioz esan daiteke nerabegarotik aurrera adin kronologikoak oso eragin txikia duela garapenean eta adin psikologikoak eta gizarte-adinak, berriz, askoz ere eragin handigoa. Adin biologikoari dagokionez, organismoak egokitzapen zuzena bideratzen duten funtzionamendu mailak mantentzen dituen bitartean, haren eragina ez da erabakigarria izango kasu gehienetan; adin horrek egokitzapena jokoan jartzen duenean

soilik bihurtuko da garrantzitsu eta orduan izango du ustekabeko eragina adin funtzionalaren gainean.

Aipatu diren eragin-iturri horiek aintzat hartuta, helduaroa eta zahartzarora aldaketarako egokiak dira; eragin-iturri horiek sumatu egiten dira. Aldaketa horietako asko garapenarekin lotuta dauden huts-hutsean; segida jakin bat eta antolamendu jakin bat dute, pertsona bakoitzak une bakoitzean duen ezaugarri multzoarekin lotuta. Helduaroan eta zahartzaroan, beraz, galerak eta murrizteak gertatzen dira, jakina, estereotipo zaharrek defenditzen zuten moduan; baina irabaziak ere badaude: eskuratzeak, handitzeak eta berrantolatzeak; uste zahar horiek ziotenaren aurka. Beraz, hartzarora eta nerabezarora bezala, horiek ere garapen-aldiak dira, baina, zalantzarik gabe, ezaugarri bereziak dituzte.

12.4. Gaian sakontzeko jarduerak

Gai honetan zehar, bizi-zikloan izaten diren gertakizunak aztertzeko bi ariketa praktikoko proposatzen dira: batetik, bideo-praktika bat eta bestetik, adinekoen artean egon daitezkeen desberdintasunak aztertzeko ariketa praktikoa.

12.4.1. Bideo-praktika: zahartzarora

Helburua: pertsona nagusiengan bizi-zikloaren gertakizun normatiboak eta ez-normatiboak identifikatzea.

Baliabideak: *¿Hay alguien ahí fuera?* dokumentala eta A eranskina.

Fitxa teknikoa

Izenburua: *¿Hay alguien ahí fuera?*

Egilea: Josep Morell. Documentos TV. Premio Infanta Cristina de IMSERSO

Urtea: 2006

Iraupena: 58'

Hizkuntza: gaztelania

Laburpena:

Dokumental horretan, estatu espainiarrean adineko hainbat pertsonak bizi duten errealitatea islatzen da, asko eta asko bakarrik eta laguntzarik gabe hiltzen baitira. Egun,

65 urtetik gorako 7.000.000 pertsona daude eta, seitik bat bakarrik bizi da; urtero, batez beste, 60 zahar bakarrik hiltzen dira. Horietako batzuek bizi-kalitate duina izateko baliabiderik ez izatea gehitu behar zaio egoera horri. Adibide gisa, lau adinekoren egoera eta bizimodua kontatzen da: dirudun batena, behartsu batena, hiritar batena eta herri txiki batean bizi den beste batena.

1. Conchita (84 urte): Bartzelonan bizi da dutxarik eta igogailurik ez duen 40 metro karratuko pisu batean bakarrik, orain dela bi urte semea hil zitzaionetik. 400 euroko pentsioa jasotzen du eta, horietatik, 132 euro alokairua ordaintzeko behar ditu. Astean behin bi orduz, gizarte laguntzailearen bisita izaten du.
2. Santiago (90 urte): osasun ona eta maila ekonomiko altua du. Egun, pertsona zaharrentzako zerbitzuak eskaintzen dituzten apartamentu-eraikin batean bizi da Bartzelonan. *Santiveri* markako produktuak ekoizten dituen familiako enpresara joaten da egunero korreoa sailkatzera, erretiratua izan arren. Gainera, bere elikadura eta egoera fisikoa zaintzeko saiakera berezia egiten du.
3. Emilia (79 urte): Galiziako herri txiki bateko emakumea da eta duela urte batzuk hona bere bizilagunen etxean bizi da, bere etxebizitzaren egoera kaxkarra dela-eta. Gauza asko egiteko besteen laguntza behar duen arren, emakume aktiboa da, baratzea zaintzen du eta egunero irteten da lagunekin paseatzera.
4. Margarita (83 urte): Madrilen bizi da pisu batean eta bakarrik. Entzumen-arazoak izan arren, osasuntsu mantentzen da egunero kirol arina eginez. Bestalde, 1.200 euroko pentsioa jasotzen duenez hilerok, ez du gizarte laguntzailerik izateko aukerarik.

Prozedura: dokumentala ikusten den bitartean, ikasleak A eranskinetako fitxa didaktikoa osatu behar du. Dokumentala amaitu ondoren, irakasleari helaraziko dio fitxa didaktikoa.

12.4.2. Ariketa praktikoa

Helburua: bizi-zikloko hainbat adin tartetan gertakizun normatiboak eta ez-normatiboak aztertzea.

Baliabideak: Batetik, honako adin-tarte hauetako bakoitzean dauden hiru pertsona: 25-35 urtekoak, 45-55 urtekoak eta 65-75 urtekoak. Bestetik, grabagailua eta elkarrizketako galdesorta.

Prozedura:

- Lauzpabost ikasleko lan-taldea antolatuko da.
- Baliabideetan zehaztu den bezala, hiru adin tarteetako hiru pertsona elkarrizketatuko dira; elkarrizketan zehar, elkarrizketatuaren biografia ezagutu nahi da. Horretarako, bizi-zikloaren gertaera normatiboei, ez-normatiboei, erlaziozkoei, aldaketa intra eta interindibidualei buruz galdetuko zaie.
 - Datu soziobiografikoak: pertsonalak (adina, sexua, egoera zibila, seme-alabak, ikasketak, lanbidea, osasun-arazoak, zaletasunak eta abar), familiakoak (norekin bizi den, etxebizitzaren ezaugarriak, familiarekiko harremanak, eta abar) eta sozialak (lagunak, jarduera sozialak, eguneroko jarduerak eta abar).
 - Bizi-zikloaren ikuspegitik (haurtzaroan, nerabezaroan, gaztaroan, helduaroan eta zahartzaroan) izan dituen gertaera positiboak zein negatiboak aipatuko dira, (arazoak, esperientzia garrantzitsuak, harremanak, irakaskuntza, garaiko oroitzapenak, harreman sexualak, aisialdia, nortasunaren garapena eta krisialdiak, lan-esperientziak, erretiroa eta abar).
- Elkarrizketa egin eta gero, honako gidoiari jarraituz, txostena idatziko da:
 - Parte-hartzailearen bizi-zikloan zehar izandako gertaera normatiboak, ez-normatiboak eta erlaziozkoak identifikatu eta argudiatu.
 - Parte-hartzaile bakoitzarengan eragina izan duten gertaera garrantzitsuenak identifikatu eta argudiatu.
 - Parte-hartzaile bakoitzaren bizi-zikloan izan diren aldaketa intraindividualei buruzko hausnarketa egin.
 - Parte-hartzaile bakoitzaren bizi-zikloan izan diren aldaketa interindibidualen arteko konparaketa egin.
 - Eranskin gisa, elkarrizketaren transkripzioa txertatu.